

Mayatzian Ama Birjiña-ri



¿Zeñ ageri da goyan
zeru zabalian,
aingeruak ditula
bere bazterrian,
distiya zabaldurik
inguru danian?
Ama Birjiña bere
edertasunian.

Far-irria dariote
bere ezpaiñchuak,
ta zabal-zabal dauzka
bere besochuak,
ta diote bere begi
chit errukitsuak,
«etorri azkar onuntz
nere semechuak».

Eta bere semeak
geranak benetan,
auspeztutzen gerade
Amaren oñetan;
berak poztutzen gaitu
tristura danetan,
eta libratzen beti
estutasunetan.

Bitarteko oberik
 ¿nor da Jaunarentzat,
 irichi nai badegu
 zerebait guretzat?
 Jartzen badegu Ama
 guk bitartekotzat,
 Jaunak ez du ukatzen
 ezercho beretzat.

¿Zeñek lagutzen dio
 itsas gizonari,
 dabillenan ekaitz
 gogorrakin larri?
 ¿Nork bidean galdurik
 dabiltzan ayeri?
 Ama Birjiñak dio
 laguntzen denari.

Pekatuen pisuan
 azpiyan dagona,
 ¿noletan damutu ta
 biurtzen da ona?
 Bideztaturik umill
 Birjiñaren gana,
 zeña dan pekatari
 guztiaren Ama.

.....

Orañ arte bezela
 lagundu aurrera.
 Begira, Ama, beti
 zere artaldera
 ardirik joan ez dediñ
 okerren bidera,
 eraman... gero... denak
 zeru ederrera.

ENRIKE ELIZECHEA.

Erreteriyen 1904-ko Mayatzian.

